




Siria iparraldean kupula dotoreak dituzten adobezko etxe tradizionalak desagertzen ari dira, bertako biztanleak exodora bultzatu dituen gerraren biktimak direlarik.

«Gure herriak 3.000 eta 3.500 biztanle artean eta 200 adobezko etxe inguru zituen. Baina gerra eta terrorismoa zirela eta, biztanleek alde egin zuten», dio Mahmoud al-Mheilejek, bere herriko kolore okreko etxe abandonatuen aurrean.

Oum Amouda Kabira antzinako habitat tradizional hori duen Alepo probintziako herri bakarrenetakoa da. Eskualdea borroka askoren lekuko izan da 2012an gerra hasi zenetik, eta jihadistek kontrolatzen zuten armada erregularrak kontrola hartu aurretik.

Gerrak milioi erdi hildako utzi ditu, eta milioika siriar inguruko herrialdeetan errefuxiatuta edo beren herrialdean bertan desplazatuta daude.

«Gaur ez gara gutako 200 baino gehiago itzuli», gehitzen du eguzkiak erretako berrogeita hamar urteko aurpe-

ERLAUNTZ-ETXEAK, GALZORIAN SIRIAN

Mila urteko historia duten adobezko etxe kupuladunak desagertzen ari dira

 **ONDAREA** / Pablo RUIZ

Siriako iparraldean izandako exodoak hutsik utzi ditu mila urteko historia duten adobezko etxe kupuladunak. Erortzen ari dira eta ez dago inor konpontzeko. Igeltsero tradizionalak eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutzak ere galtzeko arriskuan daude. Libanon, ondare hori gordetzen saiatzen ari dira.

gia duen gizon honek. Etxe hutsetan barrena ibiltzen da, bere eta bere maiteen etxeetan barrena, pitzatzen ari diren hormak eta ia erortzen ari diren sabaiaak erakutsiz.

Irakasle hau ohiko etxebizitzetatik oso gertu dagoen hormigoizko etxe batean bizi da orain, lastoarekin nahasitako lur gordinarekin eraikitako tradiziozko etxe horietatik hurbil. Material apurkor horrek mantentze erregularra jaso behar du «gutxienez bi ur-

tean behin, haizearen eta euriaren ondorioz», iraun dezan. «Etxeak desagertzen ari dira, begira zein egoera txarrean dauden», deitoratu du bedertzi seme-alabaren aitak.

Ondoko Haqla herrian, Jamal Al Ali, estera baten gainean eserita, bere familia ugariarekin gosaltzen ari da hormigoizko etxe baten aurrean. Berak ere gogoz kontra utzi zuen bere kupuladun etxea. «Hemen jaio ginen eta hemen bizi izan gara beti (...)

Buztinezko etxe hauek mila aldiz hobeak dira», azaltzen du, «neguan ona da eta udan freskoa».

«Baina ez dago ur eta elektrizitate gehiagorik. Buztinezko etxeak erortzen ari dira eta ez dago inor haiek konponduko dituenik».

ANTZINAKO EZAGUTZA

Gerrak eragindako exodoaren ondorioz, eskualdeak bere igeltsero tradizionalak eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutzak galdu zituen.

Issa Khodr, Libanon babeste-ko gerratik ihes egin zuen 58 urteko funtzionarioa, mota honetako etxeak nola eraiki dakien pertsona bakarrenetakoa da.

«Nik neuk ikasi nuen ofizio hau 14 urterekin, gure herrietan, norbaitek buztinezko etxe bat eraiki nahi zuen bakoitzean, beste biztanle guztiek laguntzen ziotelako», kontatzen dio AFPri Bekaako lautadatik, Siriako mugatik.

«Gaur egun, gerraren ondorioz, etxeak desagertzen ari dira, baita gure lanpostuak ere», dio. Bekaan biltzen dira errefuxiatu siriar gehienak, eta Liba-

Ezkerrean, erlauntz-etxeak Umm Amuda al-Kabira herrian, Alepoko eskualdeko ekialdean. Eskuinean, Mahmud Al-Mheilij, etxe horietako baten barruan.
AFP

noko gobernuz kanpoko era-
kunde batek, Arcencielek, bere
zerbitzuak erabili zituen etxe
tradizional horiek birsortzeko.

Ezagutza teknikoaren duten
igeltseroen ahozko istorioe-
tan oinarriturik, erakundeak
prototipo bat eraiki du Tan-
nayler herrian, Bekaa eskual-
dean. Igeltsero siriar eta liba-
noarrak parte hartzen ari dira,
modu horretan ere formakun-
tza jasoz.

«Herriko arkitektura ekolo-
gikoa da, material bakarrare-
kin eraikia: lur gordineko
adreilua, nahi den bezala birzi-
kla daitekeena, isolatzailea eta
usainak iragazten dituen»,
azaltzen dio Fadlallah Dagher
arkitekto libanoarrak AFPri.

«Suposatzen da teknika hau
Neolitoan sortu zela, duela
8.000 urte inguru, eta Siria eta
Anatoliaren ipar-ekialdera za-
baldu zela», gehitzen du.

Izan ere, askoz esparru zaba-
lagoan ezagutu dira. Homs
ekialdetik Alepo hegoalde-
raino hedatzen ziren, Raqqatik

**Gerrak eragindako exodoaren ondorioz,
eskualdeak bere igeltsero tradizionalak eta
belaunaldiz belaunaldi transmititutako
ezagutzak galdu zituen**

**Kupula konikoaren azpian, temperatura freskoa
izaten da barrualdean, 20° eta 30°C artekoa,
kanpoaldean 50°C-tik gora izan daitekeen
bitartean. Neguan, beroa gordetzen du**

Kobane eskualderaino eta Ha-
rran eskualde turkiarreraino.
Siriako basamortutik gertu
ere, Shaykh Hilal bezalako he-
rriek, Salamiyya ekialdean,
ganga-formako etxeak dituzte.

Nekazariak eta bertara iritsi
ziren nomada finkatuek zabal-
du zituzten, baina duela ia be-
rrogeita hamar urtetik hona,
biztanleak eskualdeak uzten
ari dira. Etxeak hutsik eta
mantentze-lanik gabe, honda-
kin bihurtu dira kasu askotan,
eta orain, eraikuntzari buruz-
ko ezagutza ere desagertzeko
arriskuan dago.

Ezkerrean, Mahmud Al-
Mheilij, etxe kupuladun
erori baten ondoan.
Eskuinean, familia bat
hobeto zaindutako etxe
baten aurrean.
AFP

Kohdrek azpimarratzen due-
nez, «etxe horiek aldamiorik
gabe eraikitzen dira, Siria ipa-
rraldean ez baitago zuhaitz as-
korik eta, beraz, eraikuntzara-
ko egur gutxi». Egurrik gabeko
sabaia egiteko, kupula izaten
da modu egokiena.

Arkitektoaren esanetan, tai-
lerraren helburua siriar errefu-
xiatuei teknika hori erakustea
da, «suntsitutako herrialdera
itzultzen direnean, baliabide-
rik gabe, euren etxeak eraiki
ahal izateko».

Erlauntz-etxeak ere deitzen
diete arabiar eraikuntza tradi-
zional hau. Kupula konikoaren
azpian, temperatura fres-
koa izaten da barrualdean, 20°
eta 30° C artekoa, kanpoal-
dean 50° C-tik gora izan daite-
keen bitartean.

Neguan, berriz, beroa gorde-
tzen dute, eta, uri-garaian, for-
ma konikoak fatxadak azkar
drainatzen laguntzen du, eta
ondorioz, lokatzaren higadura
txikiagoa jasotzen du. Kupula
bakoitzak gela bakarra dauka,

eta barrutik oso ilunak dira; ez
dute leihorik izaten, eta, iza-
nez gero, tamaina txikikoak
izan ohi dira.

Biltegiarako zein egoitzarako
erabiltzen dira eta isolatuta
edo ondoko etxeekin konekta-
tuta egon daitezke, konparti-
mentu elkartuen sare bat sor-
tuz. Hortik, erlauntz-etxea
izena. Kupulagatik, “alqubbat”
izena ere jasotzen dute (hitza
arabiar horretatik gaztelaniaz-
ko alkoba hitza dator).

Turkian, Kamerunen eta Ita-
lian ere antzeko eraikuntzak
aurki daitezke. Turkiako Ha-
rran herriko kondaira baten
arabera, errege batek etxeen
gaineko zergak inposatu zitue-
nean sortu zituzten biztan-
leek. Erraz eraiki eta suntsitu
daitezkeelako.

Horrela, zerga biltzaileak ze-
tozenez, berehala desagerra-
razi zitzaketan, joaten zire-
nean berriro eraikitzeko. Gaur
egun, desagiteko erraztasun
hori bere zigorra eta desager-
tzeko arriskua ere bada.

